



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

## 2023KO URTARRILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Lur Etxeberria Gurrutxaga  
Joxe Mari Iribar Zapirain  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Luken Arkarazo Silva  
Oskar Santamaria Pikabea  
Josune Urkola Larrarte  
Carlos Pérez Fraisoli  
Andoni Atxega San Sebastian  
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Kontu-hartzailea:** Gorka Lizarraga Erro.

Ez dira bertaratu: Itziar Basterrika Unanue eta Mirari Azurmendi Sorazu.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2023ko urtarrilaren 26an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

#### **1.1.- 2022KO URRIAREN 27KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek 2022ko urriaren 27ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

#### **1.2.- 2022KO AZAROAREN 24KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

Batzarkideek 2022ko azaroaren 24ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO ABENDUAREN 20TIK 2023KO URTARRILAREN 20RA (2022/1216-2023/55).**

Alkatetzak 2022ko abenduaren 20tik 2023ko urtarrilaren 20ra bitartean (2022/1216-2023/55) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- 11. KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA (2022KALD0011).**

Batzarkideei 11. kreditu aldaketaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

## **4.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN JENDAURREKO EPEALDIA LUZATZEA.**

Puntu hau diktaminatu gabe dagoenez, hasteko, batzarkideek aho batez gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

Alkateak azaldu du Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari alegazioak aurkezteko epealdia luzatzea dela asmoa, 2023ko otsailaren 28ra bitarte, hain zuzen ere.

Proposamenean jasotzen den moduan, hasierako onespina eman zitzaionetik hona eman diren pausoak azaldu ditu.

Jendaurreko epealdi hau luzatzeak tramitazioan ez dakarrela atzerapenik esan du, izan ere txosten sektorial guztiak iritsi, sartzan dituzten baldintzak aztertu eta txertatu arte ezin baitzaio behin behineko onarpenik eman.

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2015-0153

Plenoak, 2022ko urriaren 13an egindako bileran, zera erabaki zuen:

**LEHENDABIZI:** Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onespina ematea.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

**BIGARRENA:** Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena aldatzen duen eremuen mugaketaren laburpen exekutiboa jendaurrean jartzea 2023ko urtarrilaren 31a arte, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, ohiko egunkarietan eta udalaren egoitza elektronikoan iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baderitzote dagokien alegazioak aurkeztu ditzaten.

Ingurumen-azterlan estrategikoa ere jendaurrean jartzen da epealdi horretan, interesdunek azter dezaten eta egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Halaber, eraginpeko administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egitea, 2023ko urtarrilaren 31a arteko epean HAPOa eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa aztertu ahal izateko, eta egokitzen jotzen dituzten oharrak egin ditzaten.

Izapide horiek amaitu ondoren, espedientearen kopia osoa bidaliko zaio ingurumen-organo eskudunari, nahitaezko ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

**HIRUGARRENA:** Mota guztietako onarpen, baimen eta lizentziak etetea aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan. Eremuak espedientearen daude zehaztuta, G agiriko (Egikaritze Laburpena) 4. Atalean. Etete horrek gehienez bi urteko iraupena izango du.

**LAUGARRENA:** Hasierako onspena jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten, aipatutako eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei.

Orain berriz, planeamenduko bulego teknikoko udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andereak, 2023ko urtarrilaren 13an emandako txostenean jendaurreko epealdi otsailaren 28ra arte luzatzea proposatu du. Hitzez hitz honela dio txostenak:

## **BULEGO TEKNIKOA – HIRIGINTZA PLANEAMENDUA**

---

GAIA: USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN  
OROKORRAREN JENDAUERREKO EPEA LUZATZEA  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2015-0153

---

### **1. AURREKARIAK**



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

- Usurbilgo udalak 2014ko maiatzean Usurbilgo plangintza orokorra berrikusteko prozesua hasi zuen, 2004-2013 urte bitartean onartutako Arau Subsidiarioak ordezkatzeko asmoz. Prozesua, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 legearen 108. artikulua ezarritako Herritarren Parte-hartze Programa idatzi eta bertan jasotako "Usurbil, oraina da geroa" herritarren parte-hartzearekin abiatu zen.
- Abiatutako lanketaren baitan *Usurbilgo Hiri Antolatzeko Plan Orokorra AURRERAKINA* izeneko dokumentua gauzatu zen. Gauzak horrela, Alkatetzak, 2015eko apirilaren 17an emandako 2015/0320 Dekretuaren bidez, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren AURRERAKINA bi hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen (*Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 75. zenbakia*).
- Jendaurreko epealdian izandako iradokizunak erantzuteaz gain, Udaleko Plenoak, 2015eko irailaren 29an Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak onartu zituen.
- 2022 urtean Hiri Antolamenduko Plan Orokorra hasierako onarpenerako dokumentua idatzi zen eta Usurbilgo Plenoak, 2022ko urriaren 13an, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorri hasierako onespena ematea (2022ko urriaren 26ko GAO, 203 zenbakia). Horrekin batera, Plenoak Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena aldatzen duen eremuen mugaketaren laburpen exekutiboa 2023ko urtarrilaren 31 arte jendaurrean jartzea erabaki zuen. Ezarritako jendaurreko epe honek, lege ezartzen den gutxieneko 45 eguneko epea luzatu zuen.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorri hasierako onespena eman ondoren, dagozkion iragarkiak argitaratu eta dokumentua gizarteratzeko egindako jardueraz gain, zerrendatutako administrazioei eta interesatuei kontsulta egin zitzaion (besteak beste, Irismen agiria egiteko xedez Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak kontsultatu dituen administrazio eta erakunde publikoak), zehazki hauek:
  - o Udal mugakideak:
    - x Lasarte-Oriako udala
    - x Orioko udala
    - x Donostiako udala
    - x Zizurkilgo udala
    - x Aiako udala.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

- Gipuzkoako Foru Aldundia:
  - x EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO, Mendietako eta Natura inguruneko Zuzendaritza Nagusia EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO, Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia
  - x MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUKO, Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia
  - x BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUKO, Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia
  - x MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUKO Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
  - x INGURUMENA ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUKO Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia
  - x KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIKO Ondare Historikoaren Zerbitzua
  - x GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO suhiltzaile zerbitzua
- Eusko Jaurlaritza:
  - x EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
  - x LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
  - x EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILEKO Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza
  - x EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILEKO Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza
  - x EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILEKO Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza
  - x LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILEKO Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza
  - x SEGURTASUN SAILEKO Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
  - x KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILEKO Kultura Ondarearen Zuzendaritza



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

- x LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILEKO Garraio Azpiegituren Zuzendaritza
- x OSASUN SAILEKO Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza
- x IHOBE, Sociedad Pública de Gestión Ambiental
- x URA Ur Agentzia
- x EUSKAL TRENBIDE SAREA
- x SEGURTASUN SAILA
- x ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
- x EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILEKO Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritza
- x EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILEKO Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
- o Estatuko erakundeak:
  - x EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
  - x CONFEDERACIÓN HIDROGRÁFICA DEL CANTÁBRICO
  - x MINISTERIO DE FOMENTO, DIRECCIÓN GENERAL DE AVIACIÓN CIVIL
  - x MINISTERIO DE ECONOMIA Y EMPRESA, Dirección General de Telecomunicaciones y Tecnologías de la información
  - x MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN ECOLÓGICA Y EL RETO DEMOGRÁFICO, Dirección General de la Costa y el Mar: Gipuzkoako itsasertz zerbitzu probintziala
- o Beste erakunde eta talde interesatuak:
  - x AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEA
  - x BEHEMENDI Landa Garapeneko Elkarte
  - x ENBA - Euskal Nekazarien Batasuna
  - x EHNE, Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna
  - x Eguzki Talde Ekologista
  - x Ekologistak Martxan Gipuzkoa
  - x ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA
  - x ITSAS ENARA ORNITOLOGIA ELKARTEA
  - x HARITZALDE Naturzaleen Elkarte
  - x KALAPIE – Hiriko Txirindularien Elkarte
  - x ETUMETA AEK EUSKALTEGIA
  - x UDARREGI IKASTOLA, I.K.E.
  - x ZUMARTE MUSIKA ESKOLA
  - x Aginagako Atarialde Elkarte
  - x Aitzaga Kultur Taldea



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

- x Akerra Gaztetxea
- x Antxomolantxa Herri eta Kultur Elkarte
- x Bidean Agiñarron herri elkarte
- x Bota Punttuba
- x Buztinzulo Keramika Taldea
- x Biousurbiltzen elkarte
- x Antzerki txikia
- x Asociación Sociocultural Mauritana del Pais Vasco
- x Euskal Herriko AntzerkiZale Elkarte – EHAZE
- x Einean Guraso Eskolaç
- x Gure Esku Dago Usurbil
- x Gure Pakea Jubilatu Egoitza
- x Hitz-Aho Guraso Elkarte
- x Irriu Abesbatza (Parrokia)
- x Jexux Artze Kultur Elkarte
- x Nafartarrak Kultur Taldea
- x Noaua!
- x Organoaren Lagunak
- x Palestinaren Aldeko Plataforma
- x San Praixku Guraso Elkarte
- x Santuenea Kultur Elkarte
- x Teatreroak Antzerki Taldea
- x Usurbilgo Elkarlan Taldea
- x Usurbilgo Euskal Kantu Taldea
- x Ziortza Gazte Taldea
- x Zubieta Lantzen
- x Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte

- Gaur arteko jendaurreko epean, partikularren 2 idatzi jaso dira eta beste administrazio eta erakundeetako 8 txosten jaso dira.

## 2. TXOSTENA

Kontutan izanda:

- HAPOaren hasierako onarpenaren jendaurreko izapidetze aldiaren ondoren aldiaren ohi diren egunak izan direla,
- Oraindik ere beste administrazioen hainbat txosten sektorial jaso behar direla eta zenbaiten txostena emateko duten epea urtarilaren 31ko data baino luzeagoa dela (esaterako Abiazio Zibilileko Zuzendaritza Nagusiak 6 hilabeteko epea du), eta beraz jendaurreko epea luzatzeak ez duela HAPOaren tramitazioa luzatuko
- 2015ean Udal Plenoak Plan Orokorra idazteko onartutako irizpide eta helburuetako bat "herriarren parte hartzearen



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

beharra” zela, eta jendaurreko epea luzatzeak parte hartzeko aukera indartzen duela

Aurrez aipatutakoa kontutan izanda, jendaurreko epea hilabetez luzatzea proposatzen da, 2023ko Otsailaren 28ra arte.

Beraz, hona hemen nire proposamena:

- Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena aldatzen duen eremuen mugaketaren laburpen exekutiboa jendaurrean jartzeko epea luzatzea, 2023ko otsailaren 28ra arte.
- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedadura gehien duten ohiko egunkarietan eta udalaren egoitza elektronikoan argitaratzea.

Usurbilen, sinadura datan  
Udal arkitektoa

Guzti hau ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena aldatzen duen eremuen mugaketaren laburpen exekutiboa jendaurrean jartzeko epea luzatzea 2023ko otsailaren 28ra arte, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, ohiko egunkarietan eta udalaren egoitza elektronikoan iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baderitzote dagokien alegazioak aurkeztu ditzaten.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **5.- 2023 URTERAKO USURBILGO HERRI BARRUKO TAXIEN TARIFA BERRIAK ONARTZEA (HZ.06/2023-0020).**

Lur Etxeberriak azalpenak eman ditu irizpenean jasota dagoen moduan.





Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

Batzarkideek, Zerbitzuak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2023-0020

### Aurrekariak

2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak, Taxien legea, "bidaiariak herri barruan" eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000ko legea, onartu zuen. Lege hau hartuta "BURUNTZALDEA ERREGIMEN BEREZIKO GUNEA" sortu zen, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil udalerriekin, *(Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako departamentuko diputatuak agindutako, 2007ko maiatzaren 29ko Foru aginduan eta 2007ko ekainaren 11ko G.A.O. 114 zenbakian argitaratua)*.

2/2000 legea garatzen duen erregelamenduko 57. artikulua eta hurrengoak diotenez, kotxe bidez garraio zerbitzua ematea, tarifa bati lotuta egongo da eta eskumena duen organoak aldiro errebisatu eta onartu beharko du. Tarifa hori, loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai hiriko bai hiriarteko ibilbideetan.

Era berean, garraiorako tarifak arlo guztiekin batera onartuko direla adostu da. Tarifetan ekoizpen eta antolaketa egoera normal bateko, benetako kostu guztiak, sartu beharko dira: batetik amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arrazoizko mozkinak emateko eta bestetik, zerbitzua edo jarduera egokia emateko. Horregatik udalerrri horietan, tarifaren berrikuspena egin beharko da, era bereko tarifa mantentzeko.

Bestalde, tarifak urtero berrikusten dira, horretarako kostuen egituraren osagaietan izandako gorabeherak kontutan hartuz, hau da, jardunaren oreka ekonomikoan eragin izan duten gorabeherak.

### Ikusirik

2021eko abenduaren 29an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Euskadiko Prezioen Batzordearen erabakia. Bertan, 2022. urterako Usurbilgo udalak aurkeztu zituen Auto Taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoaren salneurriak onartu ziren. Hauek izan ziren 2022 urterako onarturiko eta oraindik indarrean dauden tarifak:

2022ko HIRI BARRUKO TARIFA					
1. Tarifa (1)			2. Tarifa (2)		
Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa (3)	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
5,5197	1,1735	22,5187	6,5792	1,8797	35,3901

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

(2) Tarifa hau larunbatetan, igandeetan eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da, bai eta abenduaren 24an eta 31n ere. Era berean, lanegunetan 22:00etatik 07:00etara aplikatuko da.

(3) Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

Taxilarien erosteko ahalmena mantentzearen alde eta udalerrriak taxi tarifa jakinak urte naturalaren hasieran jar ditzan, **2023. urterako USURBILGO TAXI TARIFA BERRIEN ONARTZE ESKAERA aurkeztu dute Gipuzkoako taxilarien bi elkarteek.**

Buruntzaldeko Taxiaren Eskualdeko Batzordeak, 2022ko urriaren 10ean egindako bileran, 2023. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak onartu zituen, indarrean dauden tarifei % 10,5 erantsiz. Igoera horren ondorioz, 2023. urteko tarifak hauek izatea proposatzen du:

<b>2023 URTERAKO HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA</b>					
<b>1. Tarifa (1)</b>			<b>2. Tarifa (2)</b>		
<b>Gutxieneko tarifa (3)</b>	<b>Egindako km</b>	<b>Itxaronaldia, orduko</b>	<b>Gutxieneko tarifa (3)</b>	<b>Egindako km</b>	<b>Itxaronaldia, orduko</b>
6,0993	1,2967	24,8831	7,2700	2,0771	39,1061

(1) Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.

(2) Tarifa hau larunbatetan, igandeetan eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da, bai eta abenduaren 24an eta 31n ere. Era berean, lanegunetan 22:00etatik 07:00etara aplikatuko da.

(3) Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

### **Kontutan harturik**

Herriko eta herriz kanpoko Garraio Publikoari buruz ekainaren 29ko 2/2000 Eusko Legebiltzarreko Legearen 3.3. eta 17.6 artikuluek diotenez, Udalari dagokio tarifak onartzea.

Gauzak horrela, Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak, 2023ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, Lur Etxeberria, Ainhoa Arrozpide eta Patxi Suarezren aldeko botoekin, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENENGO:** Usurbilgo herri barruko garraiorako 2023. urterako proposatzen diren aipatutako auto-taxi tarifak ONARTZEA.

**BIGARREN:** Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari onespeneraren erabakia bidaltzea behin betiko onespenera eman dezan.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

**HIRUGARREN:** Erabaki honen ziurtagiria herriko taxi titularrei, G.TAXI Gipuzkoako Taxisten Elkarteari, AGITAX Gipuzkoako Taxisten Elkarteari, Foru Aldundiko Garraio Departamentuari eta Gasteizko Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko arduradunari bidaltzea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **6.- PERTE URAREN ZIKLOAREN DIGITALIZAZIOA. TALDEA OSATZEA (AGASA ETA ZENBAIT UDAL).**

Puntu hau diktaminatu gabe dagoenez, hasteko, batzarkideek aho batez gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

Lur Etxeberriak azalpenak eman ditu irizpenean jasotzen den moduan. Bertan aipatzen den uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzetara 20.000 biztanletik gorako herriak aurkeztu daitezkeenez, Añarbeko Urak, SA, Errenteriako Udala, Hernaniko Udala, Lasarte-Oriako Udala, Pasaiaiko Udala, Oiartzungo Udala, Astigarragako Udala, Lezoko Udala, Urnietako Udala eta Usurbilgo Udala talde moduan aurkezteko aukera baliatu nahi dela adierazi du.

Beraz, lehenengo puntu honetan dirulaguntza eskatu ahal izateko taldea osatzea proposatzen dela dio.

Idazkariak zehaztu du gutxienez 20.000 biztanleri zerbitzua ematen dion ur-sistema bat izan behar dela. Kasu honetan Donostiako Udala kenduta, Añarbeko Urak-ek zerbitzua ematen dien gainontzeko herriekin osatzen dela taldea esan du.

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2023-0032  
2023ZER0001

## **AURREKARIAK**



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

2022ko irailaren 30eko BOEn (235. zk.) Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak emandako irailaren 23ko TED/934/2022 Agindua argitaratu zen. Honen bidez onartzen dira uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta dirulaguntzen lehen deialdia (2022), proiektuen norgehiagoka bidez uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko (PERTE uraren zikloaren digitalizazioa).

Agindu horretan oinarrituta, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuen lehenengo deialdirako (2022) laguntzak emateko prozedura onartzen da, lehia-konkurrentziaren bidez.

Oinarriak ikusita, eta horietan espresuki jasotzen den aukera baliatu nahian, Añarbeko Urak, SA, Errenteriako Udala, Hernaniko Udala, Lasarte-Oriako Udala, Pasaiako Udala, Oiartzungo Udala, Astigarragako Udala, Usurbilgo Udala, Urnietako Udala eta Lezoko Udala prest azaldu dira aipatu deialdian uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuei lotuta eskaera bateratu bat aurkezteko. Horretarako, nortasunik gabeko pertsona juridikoen taldea sortu nahi da, akordio bidez sortu nahi den taldea.

Akordioaren helburua proiektuaren helburua lortzeko Taldea sortzea litzateke; bestalde, Taldeko kideen arteko eskubide eta betebeharrak zehaztu nahi dira, bereziki Taldearen egitura operatiboa, lanaren antolaketa, taldekideek elkarrekiko eta hirugarrenekiko izan dezaketen erantzukizuna, sarbide eskubideak, lortu daitezkeen emaitzen legezko babesa eta balizko gatazkak konpontzeko bidea zehaztuz.

Espedientean jasota daude taldea osatze proposamena, eta proiektuari lotutako dokumentazio teknikoa, baita dirulaguntza eskaera bideratzeko bete beharrezko diren gainontzeko dokumentuak ere.

Udal Zerbitzuetako arduradunak txosten teknikoa eman du, dirulaguntza eta udalak egin beharreko lanei lotuta.

Udal Idazkariak txostena eman du, prozedurari lotuta. Bertan jasotzen dira sortu nahi den taldeari dagozkionak. Bertan jaso dira aurreragoko erabaki eta baldintzak.

Guzti hau ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**Lehenengoa.-** Erakundeak (udalak eta AGASA) elkartzeko erabakia onartzea, nortasun juridikorik gabeko talde bat formalki eratzeko, Añarbeko Urak, SA-k, Errenteriako Udalak, Hernaniko Udalak, Lasarte-Oriako Udalak, Pasaiako Udalak, Oiartzungo Udalak, Astigarragako Udalak, Usurbilgo Udalak, Urnietako Udalak eta Lezoko Udalak batera parte har dezaten irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduaren bidez araututako dirulaguntzen deialdian (agindu horren bidez, Uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak egiteko laguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, eta



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

dirulaguntzen lehen deialdia egin (2022), uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak norgehiagoka bidez egiteko (PERTE, uraren zikloaren digitalizazioa).

**Bigarrena.-** Zuzenbidean eskatzen den bezainbesteko ahalorde zabala eta nahikoa ematea honako honen alde:

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA erakundea (IFZ zk.: A20538039), DIGURBE izeneko proiektua garatuko duen Elkartearen barruan dagoen erakunde ahalorde-emailearen izenean eta hura ordezkatzuz, jardun dezan, proiektu horren esparruan, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aurrean, prozedurari jarraituz bere tramite guztietan, eta, ondorio horretarako, sina ditzan horretarako beharrezkoak diren adierazpen eta dokumentu publiko eta/edo pribatu guztiak, eta, zehazki, gara ditzan irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduaren 6.b.iv) artikuluan deskribatutako eginkizun guztiak —agindu horren bidez, onartu egiten dira uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidez laguntzak emateko oinarri erregulatzailerak, eta uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak (uraren zikloa digitalizatzeko ESEPE) egiteko norgehiagoka bidezko dirulaguntzen lehen deialdia (2022), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan—:

**Hirugarrena.-** Elkartze-akordioa Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 67. artikuluan xedatutakoaren mende egongo da, Espainiako Ekonomiaren Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planarekin lotutako jardueretarako laguntzen deialdietarako eskabideak aurkezteko taldeei dagokienez.

**Laugarrena.-** Elkartzeko erabakia eta bigarren puntuko ahalordetzea behin betiko ebazpen bidez laguntzaren onuradun deklaratzearen baldintzapean geratuko da.

**Bosgarrena.-** Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateari ahalmena ematea Usurbilgo Udalaren izenean eta ordezkartzan erabaki hau betearazteko eta eraginkortasun juridikoa izateko beharrezko diren dokumentuak sinatzeko.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 7.- PERTE URAREN ZIKOAREN DIGITALIZAZIOA. DIRULAGUNTZA ESKAERA.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

Puntu hau diktaminatu gabe dagoenez, hasteko, batzarkideek aho batez gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

Lur Etxeberriak adierazi du puntu honetan proposatzen dela Usurbilgo Udalak zehazki ze jarduketara aurkezten dituen dirulaguntza deialdira.

Batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2023-0032  
2023HZER0001

### **AURREKARIAK**

2022ko irailaren 30eko BOEn (235. zk.) Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak emandako irailaren 23ko TED/934/2022 Agindua argitaratu zen. Honen bidez onartzen dira uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta dirulaguntzen lehen deialdia (2022), proiektuen norgehiagoka bidez uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko (PERTE uraren zikloaren digitalizazioa).

Agindu horretan oinarrituta, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuen lehenengo deialdirako (2022) laguntzak emateko prozedura onartzen da, lehia-konkurrentziaren bidez.

Oinarriak ikusita, eta horietan espresuki jasotzen den aukera baliatu nahian, Añarbeko Urak, SA, Errenteriako Udala, Hernaniko Udala, Lasarte-Oriako Udala, Pasaiaiko Udala, Oiartzungo Udala, Astigarragako Udala, Usurbilgo Udala, Urnietako Udala eta Lezoko Udala prest azaldu dira aipatu deialdian uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuei lotuta eskaera bateratu bat aurkezteko. Horretarako, nortasunik gabeko pertsona juridikoen taldea sortu nahi da, akordio bidez sortu nahi den taldea.

Akordioaren helburua proiektuaren helburua lortzeko Taldea sortzea litzateke; bestalde, Taldeko kideen arteko eskubide eta betebeharrak zehaztu nahi dira, bereziki Taldearen egitura operatiboa, lanaren antolaketa, taldekideek elkarrekiko eta hirugarrenekiko izan dezaketen erantzukizuna, sarbide eskubideak, lortu daitezkeen emaitzen legeko babesa eta balizko gatazkak konpontzeko bidea zehaztuz.

Espedientean jasota daude taldea osatze proposamena, eta proiektuari lotutako dokumentazio teknikoa, baita dirulaguntza eskaera bideratzeko bete beharrezko diren gainontzeko dokumentuak ere.

Udal Zerbitzuetako arduradunak txosten teknikoa eman du, dirulaguntza eta udalak egin beharreko lanei lotuta.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

Udal Idazkariak txostena eman du, prozedurari lotuta. Bertan jasotzen dira sortu nahi den taldeari dagozkionak. Bertan jaso dira aurreragoko erabaki eta baldintzak.

Guzti hau ikusirik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa.-** Irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduak erregulatutako prozeduran parte hartzea eta berori espresuki onartzea, eta, horrenbestez, prozedura hori onartzea eta horri men egitea, erregulatuta dagoen bezala.

**Bigarena.-** Onartzea AGASA buru duen Talde-proiektuan barne hartutako udalerrian egin beharreko jarduketak. Usurbilgo Udalak harekin parte hartzen du aurretik deskribatutako deialdian. Jarraian, jarduketa horiek deskribatzen dira:

- Izenburua: USURBILGO UR SARE INTEGRALAREN DIGITALIZAZIOA.
- Xedea: Usurbilgo ur hornidura eta sanameneduaren digitalizazioa
- Udalerrian egin behar diren eta diruz lagundu daitezkeen jarduketak:
  - o 120.000 € ur hornidura sarea sektorizatu eta kaudalimetro telegestionatuak jartzeko.
  - o 17.025 € ur hornidura sarearen ur galera murrizteko ( galera estrukturalak ).
  - o 10.424,4 € saneamenduaren plan integrala idazteko.
  - o 34.500 € aginezkabideen azterketarako.
  - o 72.324,63 € San Estebaneko instalazioak SCADA bidezko telekudeaketa ezartzeko.
- Jarduketan aurrekontua (BEZa barne): 269.910,63 €
- Jarduketan aurrekontua gastu hautagarriaren gainean (BEZik gabe): 269.910,63.-€
- Gastu hautagarriaren gainean eskatutako dirulaguntza (BEZik gabe): 195.837,44.-€
- Baterako finantzaketa: 269.910,63 €
- Egikaritze-epea: 2025/12/31.
  - Dirulaguntza ematen duen erakundea: Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumeneko Estatu Idazkaritza.
  - Dirulaguntza eskatzen duen organoa: Alkateak, Udalbatzak erabakita.
  - Unitate exekutatzailea: Zerbitzuak.

**Hirugarrena.-** Proiektua hautatuz gero eta eskatutako dirulaguntza emanez gero, konpromisoa hartzea aurrekontu-zuzkidura izateko eta planteatutako proiektua finantzatzeko kreditu nahikoa gaitzeko, proiektua egikaritzeko onartzen den egutegiaren arabera. Proiektuaren zati diren jarduketa horiek gauzatzeko eta horien sostengatze ekonomikoa



Usurbilgo Udala

Data: 2023/01/26

bermatzeko, erabaki da diruz lagundu ezin den jarduketan zatia aurrekontu-zuzkiduren aurreikuspen hauen kontura finantzatzeko dela:

2022 urteko 7000.601.161.00.01

**Laugarrena.-** Konpromisoa hartzea Usurbilgo Udalak behar diren baliabide teknikoak eta finantzarioak izan ditzan, diruz lagundutako jarduketa abian jarri ondoren eta gutxienez jardueraren lehenengo bost (5) urteetan hura mantendu eta gauzatuko dela bermatzeko.

**Bosgarrena.-** Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateari ahalmena ematea Usurbilgo Udalaren izenean eta ordezkaritzan erabaki hau betearazteko eta eraginkortasun juridikoa izateko beharrezko diren dokumentuak sinatzeko.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **8.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:25ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**